

B

BARREN

TOKIKOM

Moda soinean

Julia Fernandez



ELGOIBARKO MAPA TOPONIMIKOAREN AURKEZPENA

Bertaratutakoei maparen ale bana emango zaie



Eguna: Martxoak 1, osteguna

Ordua: Iluntzeko 19:00ak

Lekua: Kultur Etxeko hitzaldi gela



elgoibar
bizI-bizIkat



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



**5 EGUNeko
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Behar dugu Dantzan.com

Elgoibarko dantzariok izugarritzko zortea dugu. Haritz dantzari taldean zuzendari eta irakasle bikainak izan ditugu azken hamarkadetan, eta haiek egindako lan ikaragarriaz gozatzeko aukera dugu guk. Jose Inazio Sarasua, Lourdes Odriozola eta Jon Lizarralde, besteak beste, euskal dantzen inguruko ezagutza sakonarekin gidatu dute dantza taldea, eta Euskal Herriko talde onenen begirunea eskuratu dute gure taldearentzat. Hala, Juan Antonio Urbeltz eta Argia dantzari taldea, Portugaleteko Elai-alai edo Galdakako Andra Mari taldeekin ikasteko aukera dugu eurei esker. Eta hori izugarria da. Izan ere, ez dago eskolarik ez ikasketarik jarduera honen ezagutzan behar bezala trebatzeko. Adituekin zuzeneko harremana da bide bakarra. Egoera horretan, gure zortea ez duten euskal dantzari gehienentzat, eta baita guretzat ere neurri batean, dantzari buruz ikasten jarraitzeko toki bakarra *Dantzan.com* webgunea izan da.

Elgoibartarrok, Elgoibarren gertatzen diren gauzen berri izateko BARREN daukagun moduan, dantzaren munduan gertatzen eta egiten diren gauzen berri izateko *Dantzan.com* izan dugu dantzariok azken hamar urteotan. 10.000 artikulua, 8.000 argazki, 1.000 bideo eta dantzari buruzko hainbat eta hainbat kontu interesgarri biltzen ditu *Dantzan.com*-ek. Dantza ikuski-

zun berriak, inauterietako tradizio zaharrek, dantza garaikide modernoek edo euskal dantza tradizional zaharrek, denen berri izan dugu dantzazaleon Interneteko plaza horretan, eta baikoitzak egindakoak ere beste dantzazaleei erakusteko aukera izan dugu horren bidez.

Krisiaren eta erakundeen aurrekontu murrizketen ondorioz dantzariok elkarren berri izateko eta euskal kulturaren alor honi buruz ikasten jarraitzeko genuen gune bakarrak itxi egin ditu ateak. Erakundeek *Dantzan.com* berriz martxan jartzeko behar den laguntza eskaini dezaten sinadurak batzen ari da *Dantzan.com* gunean bertan. Guk sinatu dugu. Gonbidatuta zaudete zuek ere.



Maialen Astigarraga

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Krisiaren eta erakundeen aurrekontu murrizketen ondorioz dantzariok elkarren berri izateko eta ikasten jarraitzeko genuen gune bakarrak itxi egin ditu ateak”

V. URTEURRENA

RAMON UNTZILLA ARANBERRI



*Kaixo, Ramon
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitugu katigu
ta memorian zaitugu*

Etxekoak

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela. V. urteurreneko meza astelehenean, otsailaren 27an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO VASCO



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE 100



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Herrira

Badira aste batzuk Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hainbat eskaera egin zizkiola Espainiako Gobernuari. Preso diren heinean, euren dagozkien eskubideak eskatu zituzten; alde batetik, gaixorik dauden presoak, zigorraren laurdena bete dutenak eta 197/2006 dotrina ezarri zaien presoak aske uztea; eta, bestetik, preso guztiak Euskal Herriko espetxeetara gerturatzea.

Espainiako Gobernuak ezetza eman du, legegari iruzur egin nahi izan diotela argudiatuz, berriro ere barkamena, damua eta halako leloak berriro errepikatuz.

Berriro ere gezurti eta tranpati azaltzen da Gobernuak: presoak ez dira neurri bereziak eskatzen ari, legeak esaten duena betetzea baidzik. Gobernuak da iruzurra egiten ari dena, aurreko gobernuak egin zuten moduan, beraien legea kunplitu ez eta xantaia eta mendekuan oinarritutako espetxe politika aplikatuz. ETArekin hautsi behar dutela esaten du Gobernuak, baina Aieteko adierazpenarekin berehala bat egin zuena ETA izan zen; ETArekin desarmaea ez da hasi, besteak beste, Espainiako Gobernuak ez duelako bat ere pausorik eman nahi izan.

Espainiako Gobernuak irabazletzat azaldu nahi du; bere etsaia gainditua, errenditua eta barkamena eskatzen ikusi nahi du mundu guztiaren aurrean. Euren dira filmeko onak, eta besteak txarrak, gaiztoak. Horrela jokatu du gatazka politikoa dagoela ezkatatu nahi duela; honek beste bide batzuk zabaltzera behartuko lukelako..

Estrategia hori apurtu behar dugu. HERRIRAK deituta kontzentrazioa egingo da ostiral honetan arratsaldeko zortziretan Plaza Handian, hilabeteroko azken ostiraletan egiten den moduan. Bertara joateko deia egiten dizuegu. Guztion artean erakutsi behar dugu gizartea dela aldaketarako gilitza.

Herrira bilgunea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Andres
Alberdi

Inauteriak pasa berriak izan arren, burua beste kontu batzuetan diat oraindik, Angel, eta ez duk harritzekoa, azkenaldi honetan hedabideetatik jasan behar izan dugun matraka ez baita izan nolanahikoa. Ezinbestean, bi pertsonarengan jarri behar izan diat/diagu arreta:



Angel
Ugarteburu

Ulertzen joat, bai, Andres, hire samina eta haserrea bi pailazo horien inguruan inauterien atarian muntatu dituzten antzerkien aurrean. Ederto ulertu ere.

Manuel Fraga Iribarmerengan eta Baltasar Garzon epaile ospetsuarengan, hain juxtu. Egia aitortu behar badiat, zera esan nahi diat, akaso ez dakik eta: izen horiek entzutearekin batera, tripetako tximeletak, dantzan jarri ez, baizik harri trinko eta irentsiezin bihurtzen zaizkidak. Ez duk gutxiagorako, oso argi erakutsi ditek-eta horiek euskaldunonganako maitasuna eta begirunea...

Lehenak ematen zidak korajerik handiena, hala ere. Faszista nabarmena izan, Francoren beste ministro batzuekin batera hainbat erailketaren arduradun izan (gogora gaitezen, besteak beste, Gasteizko 5 hildakoez), ikurrina ez zela legeztatuko bere hilotzaren gainetik pasatuta ez bazen harro esan..., eta, hala ere, hor izan diagu urtetan boterean Espainiako demokrazia santu deituan. Ez zian gertaera haiengatik sekula santan barkamenik eskatu, eta ez ziotean erantzukizunik exijitu ere. Haren meritua izan omen zuan, gainera, Espainiako eskuin *demokratikoa* batzea ere.

“[Fraga] dagoen tokian dagoela, egon bedi betiko (gurekin ahaztuta)”

Espainiako konstituzio jainkotuaren aitetariko bat ere izan zuan, eta, jakina, horrek argitzen dik euskaldunok oraindik ere ordainsari garestia pagatzen aritu beharra. Ez zioat nik eskerrik emango horiengatik guztiengatik. Ziur bere jainkoak bere altzoan hartuko zuela bekatu guztiak aitortu eta barkatuta. Ziur hark ere ez diola inolako erantzukizunik eta ordainik eskatu. Iseka guri hortik ere. Hona nire desioa: dagoen tokian dagoela, egon bedi betiko (gurekin ahaztuta).

Nik nahiago joat, ostera, horrekin odol txarrak ez egitea. Hobe txotxongiloen ikuskizun modura hartu eta barre apur bat egin edo, bestela, txistuak jo. Izan ere, azken urteotan ez ezik mendeetan ere halako ikuskizunetara ohituta gagozak: euskaldunok ingurukoekin ditugun harremanak nahiko karnabalezkoak dituk aspaldion. Pirineoz ipar aldera erreboluzioa eta hego aldera konstituzioa edo amorrazioa, beti jaukagu auzoko morroiren bat etxean agintzen. Euskaldunok halaxe izendatzen dugu fidatzekoa ez den pertsona. Erderaz - *¿Quién es ese tipo?* Eta - *Nor dok morroi hori?* Euskaraz.

“Kanpoko morroiak jagozak agintean, eta gu, haien erdian erdi-itota, nagusi on baten zain”

Horixe dok gerta daitekeen gauzarik txarrena: morroiak agintzen jartzea, haiek euren nagusiaren esanetara egoten baitituk eta ez beste inoren zerbitzura. Iparrera begiratu eta... nor dok agintean daukagun morroi hori? Galoirik gabeko Napoleontxo berria. Nor hegoan jarri diguten Cánovas berria? Kontuak ez dituk, ba, asko aldatu. Ia batere ez. Kanpoko morroiak jagozak agintean eta gu, haien erdian erdi-itota, nagusi on baten zain eta bila.

Horixe dok eta izango dok, Andres, gure mendekua: txotxongiloen kontura barre egiten edo haien morroieriak txistukatzen jarraituko joagu, mendez mendez egin dugun bezala, gure nortasunak ematen digun nagusitasunean sendo, merezi dugun nagusia lortu arte. Morroien saillean, txotxongilo lanetan nahi gintuzkete, baina ez juek horrelakorik lortuko. Ikusle izango gaituk benetako nagusien ordua iritsi arte.



XI. URTEURRENA

BEGOÑA IRIONDO ALCIBAR

2001ko otsailaren 21ean.

“Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin”



Elgoibarko Udalak aldizkari bat sortu du, hilero herritarrei informazio instituzionalaren berri emateko

Elebiz argitaratuko du, koloretan, eta herritarrek buzoian jasoko dute

Aurrerantzean, hilero-hilero, hama-sei orrialdetako udal aldizkari bat jasoko dute elgoibartarrek buzoian [5.500 ale argitaratuko dituzte]. Era horretan, Udalak sortzen duen informazio guztia zuzen-zuzenean jasoko dute herritarrek, koloretan eta elebiz. Hala ere, euskarak lehentasuna izango duela aurreratu du Alfredo Etxeberria alkateak. Hala, hemendik aurrerakoan herritarrek bi bide izango dituzte Udalaren berri izateko: webgunea (www.elgoibar.org), eta *Elgoibar* aldizkaria.

Bi helbururekin sortu dute aldizkaria. Batetik, aurrekontuetan komunikazioari eta propagandari eskaintzen zaion diru partida murriztea, eta bestetik, herritarrei informazio instituzionalaren berri ematea. Orain arte, Kultura Sailak jasotzen zuen diru gehien komunikaziorako, baina sail bakoitzaren-tzako diru kopuru jakin bat gordetzen zuen Udalak. Guztira, 50.000 euro bideratzen zituen helburu horretara. Orain, ordea, sail guztien artean banatzeko diru partida bakar bat sortuko du, 25.000 euro ingurukoa. "Gastuak erdira ekarriko ditugu, eta departamentu guztiek komunikaziorako baliabi-



de berdina izango dute", nabarmendu du Alfredo Etxeberria alkateak.

Sail bakoitzak bere orria

Aldizkarian, Udaleko sail bakoitzak bere orria izango du, eta teknikariek eurek idatziko dute informazioa, irizpide estandar batzuen arabera. Informazio guzti horri, kultur agenda ere gehituko diote, eta, horren ordez, orain arte elgoibartarrek etxean jasotzen zuten kultur gida desagertu egingo da. A5 tamainan argitaratuko dute aldizkaria eta martxoan banatuko

dute lehenengo alea. Lehenengo aleko azala Martxoaren 8ari, Emakumeen Nazioarteko Egunari, eskaini diote eta Emilia Nogalesek ilustratu du, marrazki batekin. Martxoaren 8ko adierazpenaz gain, honako beste gai hauen berri eman- go dute lehenengo alean: Elgoibarko leku- izenen mapa, gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea eta beste hain- bat jakingarri, terrazen ordenantza berria, artxibo historiakoaren digitalizazioa, babes ofizialeko etxebizitzak, kirol kontuak eta kultur agenda osoa.

Atletismo taldeak hartuko du, zapatuan, hil bukaerako azokako txosna



Hilabete bukaerako azoka antolatu du Elgoibar-ko Udalak zapatarako. Goizeko 9:00etatik 14:00etara Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da Nafarroa Plazan. Guztira, bost baserrietako produktuak izango dira: Lizundia Txabola, Basueta, Arrasketa, Zabaleta, eta Mintxeta baserrietakoak. Egun horretan txosna ere izango da, eta atletismo taldeak hartuko du horren ar- dura. 10:00etatik aurrera, saiheski eta patata frijitu pintxoak eta salda prestatuko dituzte, Elgoibarko ba- serritarrek eta harategiek emandako produktuekin. Eguerditik aurrera, berriz, ganadu erakusketa ikusteko aukera izango da, Plaza Txikian, eta 12:00etan, kale- ko kantariak irtengo dira kantura, Elgoibarko kaleak gi- rotzera. Nafarroa Plazatik bertatik abiatuko dira.

Lekua **Debabarrenako BTT zentroa**



Wibikes erakundeak Euskal Herriko eta Espainiako BTT zentroak aztertu ditu, eta Debabarrenakoa hirugarren jarri du sailkapen zerrendan. Sailkapen horri begira, aipatzekoa da lehenengo bosten artean Euskal Herriko hiru daudela: Izkikoa (Araba), Debabarrenakoa eta Busturialdea-Urdaibaikoa. Ibilbideak, zentroa bera, zerbitzuak, tarifak, sare sozialetan duten oihartzuna... hartu dituzte aintzat sailkapena egiteko. Informazio gehiagorako: www.wibikes.com.

Lehiaketa **Bideokopla**

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta AEKren Praktikatua egitasmoak Bideokopla lehiaketa jarri dute martxan. Txapelketa horrek helburu bikoitza du. Batetik, euskara ikasten edota praktikatzeko dabilzanak bertsoaritzaren mundura hurbiltzea eta, bestetik, bertsoek euskara praktikatzeko eskaintzen dituzten aukerak erakustea. Bi lagunetik gorako taldeetan bildutako lehiakideek parte hartu behar dute, eta bikote bakoitzak euskaraz bizi nahiaren gaineko sei koplatak hamabira bitarteko sorta bat osatu eta bideo bat grabatu beharko dute. Bideoak praktikatuak@gmail.com helbidera bidali behar dira, martxoaren 25a baino lehen. Saria talde irabazlearentzako bertso-bazkari edo afari bat izango da, bi bertsoariarekin batera, taldeak eta antolakuntzak adostutako jabetxe batean. Epaimahaia Bertsozale Elkarteak izango da, baina edonork izango du bere gustuko bideoa bozkatzeko aukera Praktikatua AEK facebookeko orrialdeetan.

Irudia **'Idazleak eskolan' ekimena**

Uxue Alberdi Ikastolan izan zen joan zen barixakuan, *Idazleak Eskolan* egitasmoaren barruan. DBH 4ko ikasleekin elkartu zen idazle elgoibartarra, *Aulki Jokoa* liburuari buruz hitz egiteko. Liburuari buruz hainbat xehetasun emateaz gain, idazterakoan kontuan hartu beharreko zenbait aholku eman zizkien ikasleei. Jolas batekin eman zioten amaiera ekitaldiari.



'Prest gaude' antzezlanaren Mendaron, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira

Prest gaude antzezlanaren taula-tuko du Lakrikun antzerki taldeak martxoaren 10ean, Mendaron. *Greban gaude* izeneko lanarekin hasi zuten trilogiaren bigarren lana da hau. Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaizola eta Idoia Uranga dira aktoreak, eta emakumearen gaia jorrazten dute, umore kutsu handiz. 19:00etan izango da saioa, San Agustin kulturgunean.

Arte tailerra, astelehenean, Haizearen eskutik

Mujeres en el impresionismo izenburuko arte tailerra antolatu du Haizea emakume taldeak astelehenerako (hilaren 27a). 17:00-19:00etara izango da tailerra, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Literatur tailerra, martitzenean

Haizea emakume taldeak La Regenta izeneko literatura tailerra antolatu du hilaren 28rako, martitzenerako. Bi orduko tailerra izango da, arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, Gotzon Garate Udal liburutegian.

Ezker abertzalearen herri batzarra, martxoaren 1ean

Ezker abertzaleak martxoaren 1ean, eguenean, egingo duen herri batzarrera deitu ditu herritarrak. Urteko ildo politikoa eta nazio zein herrialdeko plangintza izango dute hizpide. Hitzaldia Kultur Etxeko so-tuan izango da, 19:00etan.

Hasier Etxeberriak aurkeztutako Sautrela saioa desagertu egingo da

"Zabaltzen ari denez, bai, egia da: Apirilaren 8an, 13 urteren ostean, 351 atalarekin desagertu egingo gara". Programako aurkezle eta zuzendari Hasier Etxeberria elgoibartarrak berak baieztatu du astean Twitterren daukan kontuan.



JULIA FERNANDEZ

EGOBLOGGERRA ETA MODELOA

“Sentimendu eta egoera pertsonala transmititzeko euskarria da moda”

Umetatik gustuko du Julia Fernandezek moda, eta modatik bizi nahi du. Zaila dela aitortu du, baina buru belarri dihardu lanean, eta pauso txikiak emanez, emaitza handiak lortzen ari da. Bless The It moda blogean irakur daitezke egunero-egunero modaz ematen dituen gomendioak, eta ondorengo helbideetan aurkitu daiteke informazio gehiago: www.blesstheit.blogspot.com, [@juliaBYulia](https://twitter.com/juliaBYulia), www.facebook.com/blesstheit. Rosarito Piropo, Ekorropa, Eguzkilore, Xarlem Creations, Nora Izagirre, Minimil, Sara Jantzidenda, eta beste hainbat dendekin kolaboratzen du, eta bere ustez, Prada, Isabel Marant, Burberry, edota Ion Fiz dira une honetan kontuan hartu beharreko diseinatzaileak. Telebistan ere jardun izan du modari buruzko tertulietan, eta gaurkoan, BARRENI kontatu dizkio modan janzteko dituen sekretuak.

Sare sozialetan egunero egiten dituzu moda gomendioak. Zein da zehazki zure lana?

Blogaren bitartez momentuko tendentziak azaltzen ditut, normalean gustuko ditudanak, baina, batez ere, jendearentzako baliagarriak direnak. Jantziak, boltsak, zapatak, bitxiak edota makillaje nahiz perfumeei buruzko berriak idazten ditut, eta, bereziki, unean uneko tendentziak gure egunerokotasunera erraztasunez moldatzea izaten da nire helburu nagusia, oinarrizko aholku baliagarriak emanez.

Moda gomendioak zure argazkiekin ematen dituzu, gainera. Kontaiguzu nolako den zure egun bat.

Aste barruan lan egiten dut eta ezin izaten ditut argazkiak atera. Hori dela eta, asteburuetan prestatzen dut blogerako material guztia. Adibidez igandetan jaiki, dutxatu eta makillatu ostean, asteko bi edo hiru *look* prestatu eta erretratuak ateratzeko leku baten bila joaten gara. Arratsaldean argazkiak eta asteko *post-ak* prestatzen ditut. Garrantzitsuena ondo antolatzea da, eta batez ere, etxekoan edo lagunen laguntza eukitzea.

“Aldizkari edo luxuzko marka batentzako lan egitea gustatuko litzaidake”

Blesstheit moda bloga kudeatzen duzu. Nola hasi zinen horretan?

Beti izan dut gustuko moda mundua, eta orain dela urte batzuk hasi nintzen modari buruzko blog internazionalak irakurtzen. Duela urtebete, eta gehiegi pentsatu gabe nire bloga irekitzea erabaki nuen. Ideia oso argi neukan, batez ere, zeri buruz idatzi behar nuen, poliki-poliki aldaketak egiten joan naiz. Ia egunero 500 eta 600 bisita edukitzen ditut, astebukaeretan pixkat jaisten bada ere. Bestalde, jarraitzaile dezente ditut, eta poliki-poliki gehitzen doaz. Twitterren, adibidez, 438 ditut; Facebooken 233; Google Friends Connect-en 283...

Nola hasi zinen moda munduan?

Beti gustatu izan zait moda, eta txikitatik mundu horrekiko sentsibiltate berezia edukit dut. Modelo bezala, nahiz eta saiatu, oso zai-

la da arrakasta izatea, baina ni aspalditik nago mundu horrekin harremanetan. Blogari esker, askoz gehiago sartu naiz mundu honetan, eta marka berriak eta diseinatzaileak ezagutu ditut. Proiektu berriak sortu zaizkit *personal shopper* edo estilista bezala, eta ezin naiz kexatu. Oso pozik nago, poliki-poliki nire ametsa lortzen ari naiz eta.

Noraino iristea gustatuko litzazuke?

Argi daukat moda munduan lan egin nahi dudala, bereziki, festak eta jardunaldiak antolatzen. Aldizkari edo luxuzko marka batentzako lan egitea gustatuko litzaidake, komunikazio eta marketing sailean.

Gaur egun modatik bizi zara ala hobby bezala daukazu?

Hau guztia hobby bat da, ez naiz honetatik bizi. Oso zaila da honetatik bizitzea, lehiakortasun handia dagoelako, baina argi daukat bloga nire aurkezpen orria dela. Esaten duten bezala, hazia ereiten ari naiz, gero fruituak jasotzeko.

‘Hola’ aldizkariaren webgunean ikusi zaitugu orain dela gutxi. Zer sentitu zenuen zure burua han ikustean?

Dena kasualitate bat izan zen, baina oso emozionantea izan zen. Madrilen egiten den *Mercedes Benz Fashion Week* pasarelara gonbidatu ninduten. Desfile eta desfile artean *Hola.com* webguneako argazkilaria gerturatu zitzaidan argazki batzuk ateratzeko, eta nik baiezkoa eman nion. Ez nuen uste webguneko portadan egongo nintzenik egun oso batez! Lankide batek deitu zidan telefonoz eta ezin nuen sinestu! Ume txiki bat bizikleta berriarekin bezain pozik sentitu nintzen. Horrez gain, *I blog Ramiro E* blogean ere agertu nintzen, *Yo Dona* online aldizkarian. Mercedes-Benz Vip zonara gonbidatu ninduten eta han atera zizkidaten argazkiak.

Balentiaga Museoan desfilatu duzu orain dela gutxi. Nolako esperientzia izan zen?

Hori bai izan zela esperientzia polita! Orain dela hilabete batzuk Nora Izagirre diseinatzailea ezagutu nuen eta elkarrekin kolaboratzen hasi ginen. Bere erropa nire blogean agertzea da ideia, hau da, beraiek erropa uzten didate eta nik *look* pertsonalak prestatzen ditut. Argazkiak atera eta blogean post-ak jartzen ditut, jendeak marka ezagutu dezan. Kasualidadez, ‘Moda’-tik Balentiaga museoan antolatutako desfilea gonbidatu zuten Nora Izagirre. Norak bazekien desfile batzuetan parte hartu nuela orain dela urte

batzuk, eta gonbidatu egin ninduen. Esperientzia izugarria izan zen! Bagenekien 250 pertsona bakarrik sartzen zirela, eta lehenengo eguneko salmentan, sarrera guztiak agortu ziren. Jantziak probatu, ileapaindegia, makillajea, entseguak etabar dibertigarriak dira, baina desfilatzera irten nintzenean adrenalina topera igo zitzaidan. Egia esateko, gozada bat izan zen, sentsazio desberdina, berria, eta berriz errepikatzeke prest nago. Hamar urte baino gehiago dira desfilatzen ez nuela, eta izugarri gozatu nuen.

“Egia esateko ez naiz gehiegi zaintzen, ez daukadalako modeloek duten presiorik”

Nolako da modeloen bizimodua? zuk asko zaintzen duzu zure burua?

Egia esateko, ez naiz asko zaintzen, ez daukadalako modeloek duten presiorik. Nik taila normala daukat, 38-40. Denetik jaten eta kirol pixka bat egiten saiatzen naiz.

Modeloak argalegiak daudela salatu izan da sarri, eta neska gazteentzat arriskutsua izan daitekeela diote.

Bai, eta horregaitik kaleko pertsona “normalak” ari dira mundu mailan arrakasta izaten, hau da, *Egoblogger* edo ni bezela moda blogak dituzten neska-mutilak. Horrelako gorputz argalekin modelo gutxi dago munduan, eta errealitatea kaleko pertsonak gara. Bakoitza den bezala eta onartzea eta errespetatzea da garrantzitsuena.

Zer da moda zuretzat?

Moda sentimendu eta egoera pertsonala transmititzeko euskarria da. Ez naiz modaren esklabua. Garrantzitsuena errealiteratzen adaptatzea da.

Zer da zuretzat ondo janzteak?

Norberaren gorputza onartu eta ondo jakitea zer geratzen zaizun ondo eta zer ez. Nire aholkua armairuan oinarrizko erropak edukitzea da: praka bakeroak, alkandora txuria, zapata oxford batzuk eta blazer beltz bat.

Erretratu zaharra



1954

Aste honetako erretratu zaharra Jose Ramon Fernandezek ekarri du BARRENERA. 1954. urteko erretratua da, eta Margarita Aranberriren despedida egunean aterata dago. Argazkian ikusten den bezala, dotore jantzi ziren emakume horiek guztiak Margaritarekin eguna ospatzeko. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Mari Karmen Txurruka, Pepita Azpiazu, Kristina Goikoetxea (†), Mari Cruz Zuazubizkar, Maria Luisa Loiola, Kristina Lizundia, Mari Karmen Azkue.

Erdiko ilaran: Ibonne Rubio, ezezaguna, Esther Unzilla, Petra Igartua, ezezaguna, Lurdes Alberdi, Mari Karmen Gabilondo, Bittori Agirregomezkorta, Maria Murgotio, Maritxu Aranberri, Jesusa Uriarte, Pakita Etxeberria (†).

Eserita: Lolita, identifikatu gabea, Petra Igartuaren ama, Katalina Ondarre, Margarita Aranberri, Antonia, Margarita Aranberri, Modesta Etxeberria (†), Begoña Gorriti.



I. URTEURRENA

JUAN CRUZ URAIN LONGARTE

2011ko otsailaren 25ean hil zen, 50 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailak 26, eguerdiko 12:00etan Garagartzako elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.

INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideoak eta argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net-en











Xixilion aparkalekutik Goiko Errota zubira joaterakoan, zubi hasieran dagoen txabola batek ikusmena murrizten du: "Xixilion kaleko aparkalekutik Goiko Errota zubira sartzeko errotanda egin dute, baina zubian bertan dagoen txabola tankerako eraikin batek ikusmena murrizten du. Errotondara sartzean ez da ikusten ezkerreko aldetik, hau da, zubitik autoren bat datorren ala ez. Ez da batere eroso, eta ispilu batekin erraz konpondu daitekeela iruditzen zaigu. Beraz, eskertuko genuke gure eskaera kontuan hartzea. Mila esker".



Gaztelekuan egoten diren gazteek ez dituzte auzokideak errespetatzen: "Gaztelekura joaten den mutil talde bat egunero futboleko jokatzeko egoten da gazteleku kanpoan, eta askotan, baloiarekin etxeetako lehio eta hormetan jotzen dute. Erabiltzen duten baloia Gaztelekutik ateratzen dute, eta ez da Gaztelekuko begiralerik egoten ume horiek zaintzen. Baloia Gaztelekukoa bada, begirale bat egon beharko litzateke gutxienez, mutil horiek kontrolatzen. Udalarari edo dagokionari eskatuko nioke arazo honi irtenbide bat ematea, bertako arduradunek ez dutelako ezer egiten arazo hau konpontzeko. Gazteleku inguruan bizi garenek eskertuko genuke".



Plaza Txikiko sarrerako zuloa konpontzen ari dira. "Plaza Txikiko aparkalekurako sarreran bertan zulo handi bat dago, eta zulo hori sahiesteko maniobrak eginez gero, beste auto bat jotzeko arriskua areagotu egiten da. Luzaro egon da horrela, baina konpontzen hasi dira. Bazen ordua. Hala ere, eta berandu baldin badator ere, eskerrik asko".

Elgoibar Ikastolak txalo bero bat eman nahi die Euskal Inauteria antolatzen lagundu dutenei: "Ikastola osatzen dugunon partetik txalo bero bat M^a Karmen Arizagari, Jone Arizabarretari, Regina Arrietari, Esnaola anaiei eta Almortza Arrillaga familiari, aurten ere, Euskal Inauterietako jaialdiak kolore bizia eta giro aparta izan zezan laguntzeagatik".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkolizarra.com 943 744 112

II. URTEURRENA

INAXIO AZPIAZU AZPIAZU

2010eko otsailaren 25ean hil zen.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 25, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



NEREA GIL eta AITOR NOVA

Taupada antzerki taldeko kideak

Taupada antzerki taldeko kideak dira Nerea Gil eta Aitor Nova. Beti gustatu izan zaie antzerkia, baina orain dela gutxi ekin diote antzerki tailerretan antzerkia ikas-teari. Lan berria prestatzen dihardute burubelarri, eta antzezlan berriaren nondik norakoak sekretupean gorde nahi izan dituzten arren, antzerkiaren inguruan jardun dugu eurekin berbetan.



“Publikoari aurre egiteko beste modu bat da antzerkia”

Aitor Nova

Noiz hasi zineten antzerkian?

Nerea: Beno, neri beti gustatu izan zait antzerkia. Ikastolan antzerki tailerretan jarduten genuenean ere, denbora gehiago dedikatzen nion horri matematikei baino. Eta gerora, unibertsitatean ikasten hasi nintzenean, kreditu askeko ikasgaien artean antzerkia ikaste-ko aukera izan nuen. Eta kasualitatez Edurne [Lasa] eta [Jose Mari] Larra ziren irakasleak eta orduan klase haiek jaso ostean, eurekin aritutako bi ikasle, Osintxuko nire beste lagun bat eta ni sartu ginen Taupadan, orain dela bi urte inguru.

Aitor: Niri ere antzera gertatu zitzaidan. Umetatik asko gustatu izan zait. Ikastetxean ere hiru bat lagun elkartu ohi ginen gure artean antzerkitxoak prestatzeko. Eta gero, Musikenen ikasten nuenean, kredi-

tu askeko irakasgaien artean antzerkia ikasteko aukera geneukan guk ere eta izugarriko aukera izan zen hura. Orduan landu nuen lehen aldiz antzerkia aditu batekin, maila teoriko eta praktikoa. Eta argi gertatu zitzaidan Elgoibarrera itzultitakoan, Taupada hemen izanda, behintzat probatu egingo nuela. Askok gustatzen zitzaizkidalako.

Nerea, *Isladak* izan zen zure lehen obra. Nolakoa izan zen tabladura lehen aldiz igotze hura?

N: Oso ona. Gainera oso libre laga gintuzten; hau da, guztiz inprobisatzen laga ziguten. Eta demaseko esperientzia izan zen. Urduitasunak ere bat-batean desagertu zitzaizkidan. Tabladura igo artekoak demasak izan ohi dira, baina bat-batean publiko aurrera agertu eta dena desagertzen

“Beste pertsona bat izateko ematen didan aukera gustatzen zait antzerkitik”

Nerea Gil

da, eta gozaten hasten zara.

Aitor, zuk lehen obra prestatzen diharduzu. Oraindik ez zara sekula antzezlan batekin tabladura igo, baina tabladuak lehen ere sarritan probatu izan dituzu musika dela-eta.

A: Bai, baina desberdina da. Ez dauka zerikusirik, eta hori da antzerkia egiteko beste arrazoietako bat. Publikoari aurre egiteko beste modu bat da. Guk beti instrumentua erabiltzen dugulako transmititzeko eta antzerkian, ordea, ez daukazulako ezer. Hitzak, keinuak... zu bakarrik zaude, biluzik. Ni neu behintzat biluzik sentitzen naiz eta, dudarik gabe, horrek lagunduko dit aurrerantzean ere nire lanean, tabladuan egoten ikasteko.

Aurrez pentsatzen zenuten modukoa da antzerki-lan bat prestatzea?

A: Ez, nik ez nuen imajinatzen horrelakoa izango zenik. Azken batean, kanpotik ikusten dena azken emaitza da. Antzerki bat ikusten gaudela pertsonaia bat ikusten dugu, baina ez dugu ikusten antzezleak pertsonaia horregana iristeko egin behar izan duen lana. Pertsonai hori nola lantzen den, zenbat lan egin behar duen antzezleak pertsonaia hori ondo ezagutzeko.

N: Antzerki bat ikustera joaten garenean, hori ikusten egoten gara ordu eta erdian, eta ondoren baloratzen dugu gustatu zaigun ala ez. Baina ez dugu ikusten benetan ordu eta erdi horren atzean zenbaterainoko lana dagoen. Eta hori, horretan jardun artean ezinezkoa da ikusten.

A: Gainera antzezleak pertsonalki ez ezagutzeko, uste izaten dugu adibidez pertsona horiek horrelakoak direla euren eguneroko bizitzan, eta ez, antzeztan dihardute akaso euren guztiz kontrako pertsonaia bat. Esaterako, orain bertan izugarria da ikustea Nereak zer lan egiten duen bera izatetik orain egiten ari den pertsonaia izatera igarotzeko.

Eta aurreratuko diguzue orain prestatzen diharduzuen obra horren inguruko zerbaite ala sekretua da?

N: Ez, sekretua da. Oso-osorik sekretua.

Erantzun galdera bati bakarrik; udaberriko bai?

A: Bai. Ea horrela den.

Orduan, zuen antzezlan berria alde batera lagata, zer da antzerkitik gehien gustatzen zaizuen?

N: Une batez beste pertsona bat izan zaitezkeela. Adibidez elkarrizketa hau egiteko deitu zenidatenean ere segituan erantzun nizuen lotsa ematen zidala. Oso lotsatia naizelako eta urteen poderioz gero eta lotsatiagoa bilakatzen ari naizelako, gainera. Eta zuek ez zenidaten sine-tsi lotsatia nintzela, baina banaiz. Tabladura igotzean, ordea, lotsa denek alde egiten dute segituan, eta une hori nire momentua bilakatzen da eta puntu.

A: Niri barruan sentitzen den adrenalina eta emozioen batuketa hori gustatzen zait gehien. Tabladura igo aurreko azken une horretan barrua lehertu beharrean izaten dugu, ezin daiteke ondo azaldu hitzekin zer den sentitzen dena.

Eta zailena edo gogorrena?

N: Egiten duguna jendeari iritsiko zaion edo ez, barruan sortzen den duda hori.

A: Momentuan sentitzen ez dudana sentimendu bat azaldu beharra. Hau da, ni egun batean pozik baldin banago eta antzerki entsegura joan eta pertsonaia triste egotea eskatzen badit asko kostatzen zait.

Eta sekula erabili duzue horrelako kasuetan esperientzia edo oroitzen pertsonalen bat? Hau da, bat-batean triste egoteko jo duzue inoiz oroitzen tristeetara?

N: Ez, nik ez.

A: Emozioak lantzeko ariketak egin izan ditugunean bai erabili izan dut hori noizean behin, baina orain ez. Orain lan berriarekin gabil-tza topera eta testuari eta antzerkiaren eskeletoari begira dihardugu, baina ez gara hasi pertsonaia horrenbeste karakterizatzen. Nahikoa daukagu lehenengo aurrekoa ondo egitearekin.

Sekula imajinatu duzue zuen burua antzerkira profesionalki dedikatzen?

N: Bai, baina ordu eta dedikazio asko eskatzen du horrek. Eta ni orain momentuan ez nago horretara dedikatzen. Eta ez da dedikazioa bakarrik; egonkortasun eza ere sortu dezake, eta orain bertan ez nago horretarako prest. Baina izatez asko gustatuko litzaidake.

A: Nik neuk ez dut sekula ikusi nire burua antzerkian era horretan. Beti izan dut oso argi musika munduan jardun nahi nuela, eta listo. Baina egia esan, gustatuko litzaidake musika eta antzerkia uztartzen dituzten proiektuetan parte hartzea.

Pertsonaia tristeak ala alaiak egitea duzue nahiago?

N: Alaiak errazagoak egiten zaizkit, baina politagoa da tristeak egitea, esfortzu gehiago eskatzen duelako.

A: Nik alaiak nahiago.

Antzerki komiko bat ala dramatiko bat?

N: Denak dauka kabida eta denari atera ahal zaio probetxua.

A: Bai, denetik pixkat; uztartuta ondoen.

Gustatzen zaizuen antzezleren bat?

N: Luis Tosar.

A: Cuéntame-ko antzezleak gustatzen zaizkit asko. Bereziki Ana Duatok eta Imanol Ariasek egiten duten lana. Onak dira.

Animatuko zenukete jendea antzerki tailerretan izena ematera?

N: Bai, nik animatuko nuke jendea, baina uste dut kontuan hartu behar dela gauza bat, Edurnek sarritan errepikatzen duena: antzerki tailerrek ez dira penak kentzeko leku bat. Horretarako joan zaitezke psikologoarengana, barre terapia bate-tara edo beste leku batera. Baina antzerkiak beste zerbaite ere eskatzen du. Noski ondo pasatzen dugula, eta horretara ere bagoaz, baina ez da hori bakarrik. Uste dut arrazoi guztia daukala Edurnek hori esaten duenean.

A: Nik neuk ere, egia esan, hasiera batean ez nuen uste horren lan serioa egiten zenik. Eta bai, lan serio bat egiten da eta oso ondo lantzen dira gauzak. Konpromiso bat eskatzen duen zerbaite da, eta gainera guk geuk adibidez, uda iritsi eta oporrak hartzen ditugu, baina Edurne eta [Jose Mari] Larra aurten ere hor ibili dira antzerkiko atrezzo dena prestatzen. Hortaz, bai, nik animatuko nuke antzerkia gustatzen zaion jendea parte hartzera, baina kontuan hartuta honek dedikazioa eta konpromisoa eskatzen duela.

“Barruan sentitzen den adrenalina eta emozioen batuketa hori gustatzen zait gehien”

Aitor Nova

EUGENIO CARO

Realeko beterranoa

Realaren harrobiko talde gehienetan jokaturakoa da Eugenio Caro elgoibartarra, eta, orain, beterranoen taldean jokatzen du. Orain dela bi zapatu ligako estreinako partida jokatu zuen Realarekin, Mintxetan, Santanderko Racingen kontra.



“Polita izan zen hemen eta ezagunen aurrean Realarekin jokatzea”

Noiz eta nola hasi zinen Realaren beterranoen taldean jokatzen?

Orain hiru bat urte hasi nintzen. 14 urterekin hasi nintzen Realean, eta zortzi urte egin nituen Zubietan. Ia kategoria guztiak pasatu nituen, eta Sansen amaitu nuen nire kirol ibilbidea, Bigarren Mailan. Lehenengo Maila ez beste maila guztiak pasatu nituen, 22 urterekin laga nuen arte. Orain hiru bat urte Azkoitin jokatu zuten partida bat beterranoek, eta taldea osatzeko jende faltan zirenez, ia animatuko ote nintzen galdezka deitu zidaten. Eta halaxe hasi nintzen. Batzuetan entrenatzera joaten naiz, eta partida batzuk ere jokatu ditut.

Beterranoena zer da, beste liga bat?

Liga pribatu bat modukoa da. Orain arte futbol indoor-ean ibili gara. Areto futbolaren antzekoa da, baina ertzetan metro bateko horma bat izaten da, eta baloia ez da kanpora irteten; ez dago korneirik eta alboko sakerik. Espainia osoan ibili gara jokatzen indoorrean. Joan zen urtera arte hoguei talde ibili ginen txapelketa horretan, baina aurten, aurrekontua justuegia zela-eta, murrizketak egin dituzte eta hamar taldera jaitsi dute kopurua. Gu, Real eta Athletic, kanpoan gelditu gara, eta beste zerbait asmatu behar! Orain, futbol zelai handian jokatzen dugu, eta joan zen astekoa lehenengo jardunaldia izan zen. Bost ekipoko bi talde daude, eta gure taldean Realak, Osasunak, Athletic, Logroñesek eta Santanderrek jokatzen dute. Gero, talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatzen dira finalaurrekoetarako.

Etxean jokatu behar duenean, Mintxetan jokatuko du Realak. Zer da zuretzako Mintxetan jokatzea? Zer sentitu zenuen zapatuan zelaira Realeko jantzita salto egin zenuenean?

Arraro xamarra egin zitzaidan, egia esan. Haundirekin jokatuta nengoan, eta azkenekoz Pedruscon jokatzen nuenean jokatu nuen Mintxetan. Egia esan poza eman zidan hemen, etxean, eta ezagunen aurrean Realarekin jokatzeak. Polita izan zen. Hotz

handia egin zuen, eta jende gutxi joan zen, baina futbolari ezagunak joan zirenez, Mintxetara gerturatutakoek asko disfrutatu zuten. Pena galdu egin genuela.

Zenbat zarete taldean? Eta non eta zenbatero entrenatzen duzue?

Taldean hoguei bat lagun gaude, eta astean behin entrenatzen dugu, Zubietan. Giro ona daukagu eta entrenamenduaren aitzakian zerbeztatu bat eta pintxo bat hartzen ditugu gero, eta gustura.

Zein da zuen helburua?

Txapelketa hau berria da guretzat, eta lehenengo helburua ondo pasatzea da. Hala ere, jakina, kirolariak gara, eta txapelketa irabazi nahiko genuke. Gaizki hasi gara, baina oraindik badago horri buelta emateko aukera.

22 urterekin utzi zenuen futbol profesionala. Zelan bizi duzu orain futbolera?

Hobby-tzat daukat. Niretzako oso esperientzia polita da, taldean orain gutxira arte Lehenengo Mailan jokatzen ibili direnak daudelako, eta tartean umetako nire idolo batzuk ere bai. Beste batzuk Realaren harrobiko taldeetan ezagutu nituen, Sansen edo maila apalagoetan, eta polita da haiekin berriz jokatzea.

Nola ikusten duzu orain Realak?

Gorabehera askorekin dabilta, baina normala ere bada. Lehenengo Mailan, Bartzelona eta Real Madril kenduta, gainerakoak antzera dabilta. Realak jende gaztea dauka, harrobiko jokalaririk asko, eta hori da niretzat inportanteena. Aurten eutsiko diogu mailari, seguru-seguru.

Etxean nola bizi dute zure afizio hau?

Ondo. Nire emazteak Elgoibarren jokatu zuen, eta umeari ere gustatzen zaio futbolera, beraz ondo. Ondo uztartzen ditugu familia, lana eta futbolera.

Sanloko senior taldeek partida erabakiorrak jokatuko dituzte bihar

Klubeko arduradunek herritarren babesa eskatu dute

Sanloko Tecnifuelle eta Alkorta senior taldeek partida erabakiorrak jokatuko dituzte bihar, Olaizaga kiroldegian. Nesken taldea lehen postuan dago, eta bigarren sailkatuaren kontra jokatuko du. Irabazten badu erosotasun pixka bat lortuko du lehenengo postu horretan, eta txapelketa irabazteko aukera handia izango du. Mutilak, berriz, bigarren postuan daude, eta lehenengo itzulian galdu zuten aurkari baten kontra jokatzen dute, Gasteizko Gure Auzune taldearen kontra, alegia. Igoera postuetan jarraitu ahal izateko ezinbestekoa dute irabaztea. Sanloko arduradunek herritarrei dei egin diete klubeko bufanda eta kamiseta jantzita animoak ematera joan daitezten. Atsedenaldira zozketa bat egingo dutela ere jakinarazi dute.



Eusko Label aizkora txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte bihar Ikastolan

Eusko Label aizkora txapelketako gazte mailako finalerdiak jokatuko dituzte bihar arratsaldean Ikastolako frontoian. Aizkolariak hogeita enbor moztu beharko dituzte, sei modu diferentetan. Lehen finalerdian Aratz Mugertza III. eta Mikel Larrañaga bikoteak Juan Rodriguez eta Jon Rodriguezen kontra jokatuko du. Bigarren finalerdian, berriz, Arkaitz Jauregik eta Jose Angel Zubiagak osatutako bikoteak Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano izango ditu aurrez aurre. Erakustaldia 18:30ean hasiko da.

Mekatar xake taldea hirugarren lekuan dago, lehen fasea amaitzeko jardunaldi baten faltan

Elgoibarko Mekatar xake taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen joan den asteburuan Bergaran, eta horri esker, sailkapen nagusiko lehen postuan jarri dira elgoibartarrak. Txapelketako lehen fasea bukatzeko jardunaldi bakarra falta da, eta Mekatar taldeak etxean jokatuko du, Hernani liderraren kontra. Bihar izango da partida, 16:00etan, Pista Beltzeko lokalean.

Morkaikok antolatutako Debako ibilaldi neurtura Gaztelekua eta Atxutxiamaikarekin

Martxoaren 11n Debako ibilaldi neurtura joateko irteera antolatu dute, Morkaikok eta Atxutxiamaikak elkarlanean. Bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea, 9-16 urte bitartekoentzat, eta laburra, 4-9 urte bitartekoentzat. Interesatuak martxoaren 1a baino lehen eman beharko dute izena Morkaikoren egoitzan, Elgoibarko Izarran edo Gaztelekuan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Alaves 0 (3. maila)
Mondragon 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko erreg.)
Billabona 2 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 7 – Ostadar 1 (Kad. A)
Ilintxa 4 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)
Elgoibar 4 – Bergara 2 (Aleb.)
Oriko 2 – Elgoibar 3 (Neskak)

PILOTA

Udaberri Txapelketa
Murumendi 22 – Lagunak 6 (1. mailako nag.)
Lagunak 18 – Aurrera 22 (1. mailako jub.)
Lagunak 5 – Goierri 22 (1. mailako jub.)
Inturre 22 – Lagunak 10 (2. mailako nag.)
Pala
Lagunak 25 – Alde Zaharra 13 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Zaragoza 1 – Concepto Egile Elg. 5 (2B)

ESKUBALOA

Urduliz 19 – Alkorta Elg. 31 (Sen. mut.)
Lauko Elg. 24 – Errotaberri 33 (Jub. nesk.)
Aloña Mendi 26 – Astigarraga Elg. 19 (Kad. nesk.)
Ereintza B 25 – Bankoa Elg. 18 (Inf. mut.)
Ordizia 28 – Txarriduna Elg. 28 (Inf. mut.)
Ikus Elg. 37 – Aloña Mendi 24 (Inf. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 25
16:00 Concepto Egile Elg. – Alcañiz Huesca (2B)
Domeka, 26
9:30 King-Kong Elg. – Noto (Jub.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25
13:00 Elgoibar – Aurrera (Kad. B)
16:30 Elgoibar – Trintxerpe (Erreg.)
Domeka, 26
16:00 Elgoibar – Mondragon (Jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 25
10:00 Bankoa Elg. – Ereintza B (Inf. mut.)
11:30 Grupo Eibar Elg. – Pulpo (Kad. mut.)
18:00 Alkorta Elg. – Gure Auzune (Sen. mut.)
Domeka, 26
10:45 IMH Elg. – Errotaberri (Kad. nesk.)

PILOTA

Barxakua, 24
21:15 Lagunak – Gazteleku (1. mailako nag.)
22:00 Lagunak – Azkoitia (1. mailako nag.)
Pala
22:45 Lagunak – Urnieta (2. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **626 052 165**
- Emakumea orduka lan egiteko prest, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduz. ☎ **690 134 485**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Esperientzia eraikuntzako makinan erabileran, garbiketa lanetan, zerbitzari lanetan eta banaketa lanetan. ☎ **689 286 167**
- Emakumea umeak edo pertsona helduak zaintzeko prest. Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumea egunez lan egiteko prest, edozein mota-tako lanetan. ☎ **685 212 060**
- Gizonezkoa baseri lanetan, abereak zaintzen edo eraikuntza lanetan aritzeko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna edo orduka. ☎ **649 044 223 / 943 257 217**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka eta astebukaerak ere. ☎ **689 632 922**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Paperak ditut eta kotxeko baimena. ☎ **632 798 768**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 729 790**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zein umeak zainduz, interna edo orduka. Erizaintza ikasketak dauzkat. Garbitzaile eta sukaldari lanak egiteko ere prest. ☎ **669 010 359**
- Emakumeak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Garbiketa lanak ere egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Adinekoak edo umeak zainduz lan egingo nuke. Jornada erdiz edo orduka. Gaixoekin gaua pasatzeko ere prest, asteburuetan ere bai. ☎ **618 052 967**
- LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika eskolak eta kontabilitateko eta finantza kudeaketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ **666 042 710**

- Emakumeak lana behar du. ☎ **689 273 664**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **943 742 282**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **659 813 048**
- Emakumea garbiketa lanak (taberna edo elkarteetan) edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **698 632 922**
- Emakumeak gauz nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia onekin. ☎ **659 612 096**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxex etxex. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz zehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingelesezko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

ESKAITZA

- Umea zaintzeko emakume euskalduna behar da. Orduka lan egiteko. ☎ **627 774 543**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak bi edo hiru logelako pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **699 813 826**
- Etxea alokatzen dut Mendaron. Bi logela ditu eta igogailua. Eguzkitsua da. ☎ **658 379 393** (17:00-19:00 bitartean deitu)
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **618 734 000**

BESTELAKOAK

- Garaje itxia alokagari Jausoro plazan, plazatik gertu. ☎ **943 740 146 / 669 022 573**
- Balio sentimental handiko erlojuak galduta, Omega Constellation markakoa. Identifikatzeko: erlojuaren itxidura korrearen gainontzeko ataletatik desberdintzen da. Ordain saria izango du. ☎ **669 960 785**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo kerozenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko! ☎ **677 898 633**
- Yamaha YZ 250 2T salgai. 2006. urtekoa baina oso gutxi erabilia eta ondo zaindua. Mendien hasteko proposa! 1900 euro. ☎ **678 587 867**

KINTOAK

- 1977an jaiotako Kintoen bazkaria martxoaren 24an. 12:30ean elkartuko gara Madalan. Martxoaren 9a baino lehen 50 euro sartu behar dira Kutzako kontuan: 2101 0036 62 0012982112

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - I

Tel: 943 741 189



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 676

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak eratzia
Lantutza: egut, aluminio, PVC
Pisua orokorra





• Oraingoan bai, **gwapo!** Oso ondo pasatu genuen zure bosgarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat!



• Zorionak, **Eneritz**, etxekoekin partez, otsailaren 23an 2 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Nikole**, bihar zure eguna. Bi muxu potolo Elgoibarko familia guztiaren partez. Ondo pasa zure egunean!




• Zorionak, **Ane**, 22an zure lehen urtea bete zenuelako. Muxu asko familia guztiaren partez, bereziki Josuren partez.



• Zorionak, **Mikel**, gaur 4 urte egin dituzulako. Ondo pasa txapelkun. Familiakoekin eta bereziki Alex-en partez.




• Zorionak, **amama**, 91 urte bete dituzulako. Etxeko guztien eta bereziki Landerren partez.



• Domekarako txokolate beroa prest? Zorionak, **Luken!**



• Zorionak, **Maialen**, muxu asko denon partez, bereziki, zure neba Asierren partez.



• Zorionak, **Aimar**, patxo handi bat denon partez. Batez ere zure anai Oierren partez.



• Zorionak, **Naia**, azkenean iritsi da zure urtebetetzea ospatzeko eguna. Patxo bat etxekoekin eta bereziki Julenen partez.



• Zorionak **Aiora!** Bihar 5 urte egingo dituzu. Muxu handi bat lhintza, Asier eta etxekoekin partez.



• Zorionak, **Goiatz**, etxeko guztien partez, eta, bereziki, Udaneren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Miren**, zure bigarren urtebetetzeagatik. Etxekoekin eta bereziki Ikerren partez.



• Zorionak, **piratxko!** Asteartean 3 urte egin zenituelako. Muxu asko denon partez.



• Zorionak, **bikote**. 6 eta 14 urte dagoeneko! Oso ondo pasa eguna, guztien partez!

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU
Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Otsailaren 27an
Ping-Pong txapelketa
ludotekan,
17:30ean hasita.

Gaur, hilak 24, igandean
Txuri Urdinera joateko izena
emateko azken eguna da!
Zatoz gurekin izotz pistara!



25 zapatua

Jardunaldiak

10:00 Elgoibar Saretzen gazte tertulia

Gai desberdinen inguruko eztabaidak egingo dira Gaztetxean, Elgoibar Saretzen-ek antolatuta.

Manifestazioa

17:00 Autobusa

Murrizketen aurka Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa, Txankakua zubian.

Kirola

18:30 Aizkora txapelketa

Eusko Label aizkora txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte ikastolan.

26 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Erlora egingo dute irteera.

Kirola

11:00 Kros txapelketa

Infantil mailako Euskadiko kros txapelketa. Mintxetan. Sari banaketa 12:15ean egingo dute.

27 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, *Mujeres en el impresionismo* arte tailerra egingo dute, Kultur Etxean.

28 martitzena

Literatura

18:00 Literatur tailerra

Haizeak antolatuta, La Regenta liburua landuko dute. Gotzon Garate udal liburutegian.

1 eguena

Batzarra

19:00 Herri batzarra

Elgoibarko ezker abertzaleak 2012. urteko ildo politikoa eta plangintza aurkeztuko du. Kultur Etxeko sotoan.

OKINDEGIA

26 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

24	Zabaleta	Etxeberria
25	Barrenetxea	Etxeberria
26	Barrenetxea	Barrenetxea
27	Ibañez	Garitaonandia
28	Garitaonandia	Garitaonandia
29	Etxeberria	Etxeberria
1	Fernandez	Yudego

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«El topo»

24, barixakua: 22:15

25, zapatua: 19:00/22:15

26, domeka: 19:00

27, astelehena: 21:30



«Vicky bikingoa eta Thorren mailua»

26, domeka: 16:30

«Drive»

(Ongarri zinekluba)

1, eguena: 21:30

«El topo» Zuz.: Tomas Alfredson, Reino Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania., 2011. 127 min. Thriller. Aktoreak: Gary Oldman, Colin Firth, Tom Hardy, John Hurt.

70eko hamarkadara eramango gaitu film honek. Espazioan egin beharreko misio batek huts egingo du Hungarian, eta Britaniako agintean eragin handia izango du. Smiley agentea erretiroa hartzear dago, eta zeregin berezi bat emango diote: sator bat informazioa zabaltzen ari denaren susmoa daukate, eta hori argitzeko kanpoko agentea izango da pertsonarik egokiena. Erretiratutako beste kide batzuen laguntzaz, traidorea nor den deskubrituko du.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongl

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA

IBILALDI NEURTUA

Martxoak 11, domeka.

Bi ibilbide egiteko aukera egongo da:

Ibilbide luzea: Deba, Arbil (435m), Itziar eta Deba. (9-16 urte bitartekoentzat)

Ibilbide motza: Deba, Arbil (435m) eta Deba. (4-9 urte bitartekoentzat)

Irteera: Elgoibarko tren geltokian 8:15ean

Itzulera: 14:00etan Elgoibarko tren geltokian

- Izena emateko epea: **martxoak 1.**
- Prezioa: 18 urtetik beherakoek doan. Helquek, treneko tiketa ordaindu beharko dute egunean bertan.

Antolatzaileak:



Izen-ematea:

Elgoibarko Izarra:

943 74 16 26/atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

Morkaiko:

943 74 02 97/morkaiko@morkaiko.net

Gaztelekuak:

943 74 32 28/gaztelekuak@elgoibar.org

Haur eta gazteak gurasoekin
nahiz bakarrik etorri daitezke